

BALIO PROPOSAMENA / PROPUESTA DE VALOR

Gure enpresak beste hizkuntza batzuetan komunikatzeko zailtasunari heltzen dio. Komunikazio eleanitza denbora errealean errazten duten kaskoak diseinatzeko ditugu, bidaiarientzako, free tours delakoez gozatzen duten pertsonentzako eta besterik gabe beste hizkuntza bat ulertzeko zailtasunak dituen ororentzat proposak diren entzungailuak.

Aukera inklusiboa delako nabarmentzen gara, errealitate ekonomiko eta behar desberdinetako pertsonen egokitatea. Gure kaskoak, tresna praktikoak ez ezik, eskuragarriak ere badira, funtzionaltasuna eta estiloa uztartzen dituen diseinu berritzailearekin. Gainera, gure soluzioa oso eraginkorra da kezkarik gabe esploratu nahi duten bidaiarientzat, ingurune globalizatu batean interakzioa erraztuz.

Aurrekontu baxua dituztenek eskuragarri izateko garestiegia ez den prezioa eskaini nahi dugu, baina ezta baxuegia ere kalitate- eta fidagarritasun-pertzepzioa bermatzeko. Nabarmendu behar da, halaber, itzulpen azkar eta zehatzeko teknologia dela, eta gutxieneko errore-marjina duela.

Diseinuari dagokionez, originala eta modernoa dela esan genezake, profesionaltasuna eta sormena islatzen dituenak. Erabilera-esperientzia lagunkoia eta erakargarria da, kontrol intuitiboekin eta hainbat testuingurutara egokitutako funtzioekin (bidaiak, negozioak, turismoa), hau da, ulerterraza da edozein pertsona motarentzat, hala nola hirugarren adineko pertsona batentzat.

Proposamen honekin, irtenbide praktiko, inklusibo eta estetikoki erakargarria eskaintzen dugu, munduko edozein txokotan oztoko linguistikoak gainditu eta pertsonak konektatzeko gai izango dena.